Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

4. ATALA Premiak

Idazkari andreak esan du ez dela ezer jaso, beraz, ez dagoela ezer adieraztekorik.

PUNTO 4º Urgencias.

Manifiesta la Sra. Secretaria no procede dar cuenta de ninguna por no haberse recibido.

5. ATALA. Eibarko EAJ-PNVren mozioa, Eibarren, NANa eta Pasaportea egiteko bulegoa 2017. urtea amaitu baino lehen abian jar

PUNTO 5º. Moción de Eibarko EAJ-PNV sobre la puesta en marcha de la Oficina de expedición del DNI y pasaporte en Eibar antes de finalizar el año 2017.

dadin.

Idazkariak dio 2017ko irailaren 15ean EAJ/PNV Taldeak mozio bat aurkeztu zuela, eta gaurko bilkura honen aurretik PSE-EE, EAJ/PNV eta Irabazi Taldeek sinatutako erdibideko mozio bat aurkeztu dela; beraz, azken hori izango dela irakurriko duena:

Indica la Secretaria que con fecha 15 de septiembre de 2017 el Grupo EAJ/PNV presentó una moción y que antes de la sesión de hoy se ha presentado una moción transaccional suscrita por los Grupos PSE-EE, EAJ/PNV e Irabazi, y que es a la que da lectura:

Mozioa, Eibarren, NANa eta Pasaportea egiteko bulegoa 2017. urtea amaitu baino lehen abian jar dadin.

Moción sobre la puesta en marcha de la Oficina de expedición del DNI y pasaporte en Eibar antes de finalizar el año 2017.

“ZIOA

20l5eko abenduan Eibarko Udal Batzarrak Mozio bat onartu zuen, Eibarko Udalerrian berriro ezar zedin NAN eta Pasaportea egiteko bulegoa. 2016ko lehen seihilekoan eskaera onartu eta bulegoa irekitzeko konpromisoa hartu zuen Espainiako Gobernuak. Horretarako, Udalak beharrezko pausoak eman ditu eta hitz emandako epean, hau da, 2017ko udaberrirako, Udaletxean espazio bat prestatu du, baldintza teknikoak betetzen dituena, eskertzekoa izanda udal-langileen kolaborazioa, bai udal-sailen berrantolaketa fisikoa erraztu dutelako, bai eta NAN bulegoa

“JUSTIFICACIÓN

En diciembre de 2015, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar aprobó una moción para que se volviese a instalar en Eibar la oficina del DNI y el Pasaporte en Eibar. En el primer semestre del 216, se aprobó la solicitud y el Gobierno Español adquirió el compromiso de abrir la oficina. Para ello, el Ayuntamiento ha dado todos los pasos necesarios y, para el plazo comprometido, esto es, la primavera de 2017, ha preparado un espacio, que cumple con las condiciones técnicas, siendo de agradecer la colaboración de los y las trabajadores y trabajadoras municipales, que han facilitado el proceso de reorganización física de las áreas y completado eficientemente las tareas

prestatzeko lanak modu efiziente batean egin dituztelako.

necesarias para prepararla oficina del DNI.

Hala ere, eta Alkatetzatik hainbat kontaktu izan diren arren Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, hauen guztien berri oposizioko taldeekin partekatu direnak, udazkeneko atarian gaude eta ez dugu irekiera dataren berririk, Ordezkaritzaren esanetan, bulegoaren personal dotazioa egiteko dituzten zailtasunak direlarik data zehatza ezin emateko arrazoia. Bulegoak ez bakarrik eibartarrei, inguruko udalerrietako biztanleei ere zerbitzu emango die. Ehundaka balizko erabiltzaile daude bulegoa noiz irekiko zain, eta erakunde publikoen betebeharra da herritarrei mezu argiak ematea. Ondorioz, bada garaia Espainiako Gobernuak Udaletxeari irekiera data zehatzaren berri emateko. Hori dela eta, Udaleko talde politikook honako mozio hau aurkezten dugu Udalbatzak eztabaidatu eta onar dezan.

Aún así, y a pesar de que desde Alcaldía se han mantenido numerosos contacto con la Delegación del Gobierno de España, contactos de los que han sido informados los grupos de la oposición, estando a las puertas del otoño, no tenemos noticias sobre la fecha de apertura, alegando la Delegación de Gobierno que la imposibilidad de dar una fecha se basa en las dificultades que están teniendo para dotarla de personal. La oficina no sólo va a ofrecer un servicio a los eibarreses, también a los ciudadanos de las localidades de alrededor. Hay ciento/s de posibles usuarios/as pendientes de la apertura y es responsabilidad de las instituciones públicas ofrecer a los ciudadanos mensajes claros. En consecuencia, es momento de que le sea comunicada la fecha exacta de apertura al Ayuntamiento de Eibar. Por este motivo, los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento, presentamos la siguiente moción para su debate y, en su caso, aprobación por parte del Pleno.

AKORDIO PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

Eibarko Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren NAN bulegoaren irekiera

El Pleno de Eibar solicita al Gobierno de España que, a la mayor celeridad nos indique la fecha exacta para la apertura

data jakinarazteko eta, ahalegin guztiak egin ditzala, 2017. urtea amaitu baino lehen, NAN eta Pasaportea egiteko bulegoa abian jartzeko.”

de la oficina del DNI, y que haga todo lo que esté en su mano para que la oficina de expedición del DNI y Pasaporte se ponga en marcha antes de que finalice el año 2017.”

Mendicute jaunak dio izandako elkarrizketetan aipatu arren gero ez dela testuan txertatu alkatearen aldetik dagoen konpromisoa, hau da, dituen hartu-emanen inguruko informazioa talde politiko guztiei ematekoa.

Gaineratzen du ez duela asko esateko, bere iritziz testuak esan behar duena esaten duelako.

Bulegoa martxan ipintzeko data bat jarrita zegoen, dio Mendicute jaunak; jende asko dago bulego hau noiz zabalduko zain, eta atzerapen bat badago, bere ustez, atzerapen horren berri eman eta azaldu egin behar da, herritarrek uler ditzaketelako atzerapen horren arrazoibideak, baina herritarrek azalpenak eta bulegoa zabaltzeko epe berri bat finkatzea eskatzen dute, eta bere Taldeak ere bai. Horregatik aurkeztu dute mozio hau, orain arte ez dagoelako epe jakinik bulegoa noiz zabalduko den esateko.

Mendicute jaunak baieztatzen du jatorrizko testuak 2017rako zabaltzea

Indica el señor Mendicute que en las conversaciones mantenidas se ha comentado, aunque luego no se ha introducido en el texto, el compromiso por parte del Alcalde de mantener informados a los grupos políticos sobre el desarrollo de los contactos.

Añade que no tiene mucho que decir, pues cree que el texto recoge lo que hay que decir.

Había un compromiso de fecha para la puesta en marcha de la oficina, prosigue, hay mucha gente que está esperando la apertura de esta oficina y si hay un retraso, cree que este retraso hay que informarlo y explicarlo, pues los ciudadanos pueden entender los motivos del mismo, pero exigen, y su Grupo también lo hace, que se den explicaciones y se fije un nuevo plazo; y es por lo que han presentado esta moción, porque hasta la fecha no hay un plazo claro de cuándo se abrirá.

Afirma así mismo que en el texto original se recogía que se abriese para el 2017, y

eskatzen duela eta erdibideko testuak 2017an zabaltzeko egin behar diren ahalegin guztiak egitea jasotzen duela.

que en el texto transaccional se recoge que se hagan todos los esfuerzos para que se abra en el 2017.

Uste du data jakin bat izatea garrantzizkoa izango litzatekeela, dokumentuak dagoeneko iraungita dituen jendea bulegoa noiz zabalduko zain dagoelako, eta jende horrek jakin egin beharko luke datozen lau hilabete hauetan dokumentuak egiteko aukerarik izango duen ala ez.

Cree, prosigue, que sería importante el disponer de una fecha clara, ya que hay gente que está a la espera, con los documentos ya caducados y deberían de saber si en los cuatro próximos meses no van a tener esta opción.

Amaitzeko esaten du poztu egiten dela testua beste bi talde politikorekin batera sinatu dutelako.

Finaliza afirmando que se alegra de que se haya podido firmar el texto con otros dos grupos políticos.

Ondoren, Errasti jaunak hartu du hitza. Esaten du bere Taldea kontu honekin aspertzen hasita dagoela eta mozioa ez ote den aurkeztu medailaren bat jartzeko.

Interviene a continuación el señor Errasti quien afirma que a su Grupo le empieza a aburrir el tema y que piensan si la moción no será para llevarse alguna medalla.

Gaineratzen du garbi dutela Polizia Nazionala Eibarrera etorriko dela, hura etortzeko dena prest dagoelako, baina sinestezina iruditzen zaiela oraindik ez jakitea polizia armekin etorriko den ala ez.

Añade que tienen claro que la Policía Nacional va a venir a Eibar, ya que está todo listo para que venga, pero que lo que les parece increíble es que a estas alturas no se sepa si va a venir o no la policía armada.

Baldin datoz, dio, denek dakite urriaren 1aren ondoren etorriko direla, guztiak dabiltzalako Katalunia aldean itsas bidaian; baina, bestalde, udal talde guztiek eduki dute hitzarmena eskuan, eta uste du haiek

Si viene, prosigue, ya saben que será después del 1 de octubre, pues están todos de crucero en Cataluña; pero por otro lado, todos los grupos municipales han tenido el convenio en la mano y supone que ya se habrán dado cuenta de

konturatuko zirela, hau da, bulegoaren izena txarto ematen dela, NANaren bulegoa deitu arren, benetan Atzerritarrentzako eta Dokumentaziorako Unitate bat delako, eta galdetzen du gainerako taldeek ba ote dakiten zer den hori, beraiek badakitelako eta horrek kezkatu egiten dituelako.

que se denomina mal a la oficina pues se llama oficina del DNI, cuando de lo que se trata es de una Unidad de Extranjería y Documentación; y se pregunta si el resto de los grupos saben qué implica esto, pues ellos sí lo saben y les preocupa.

Alkate jaunak dio gauza batzuetan ezin dela egin urdaiazpikoa hartu eta hezurra utzi, eta, oraingo kasu honetan, pakete bakar batean dagoela polizia nazionalaren etorrera.

Alkateak dio NANen lan egiten duten funtzionarioak ez direla poliziak, baina badagoela polizien segurtasun-zerbitzu bat, eta ez dago jakiterik zerbitzu hori zenbaterainokoa izango den, eta galdera hori berak beti egiten duena dela, eta nahiko luke erantzun bat jasotzea eta berari beti hori galdetzen ez ibiltzea.

Alkateak gaineratzen du nahiko lukeela era honetako mozio gehiago aurkeztu beharrik egongo ez balitz, baina prest dagoela behar diren guztiak sinatzeko; hala ere, badaki ez dutela gauza gehiegirako balio, gaiaren inguruan lanean ari direla adierazteko baino ez.

Alkateak dio orain dela egun batzuk

El señor Alcalde afirma que hay cuestiones en las que no se puede coger el jamón y dejar el hueso y que en este caso en el paquete está que viene la policía Nacional.

Los funcionarios y funcionarias que trabajan en el DNI, prosigue, no son policías, pero es verdad que hay un servicio de seguridad de policía y no se sabe hasta dónde va a llegar este servicio y es ésta una pregunta que la hacen permanentemente y que él desde luego lo que desearía es tener una respuesta y que le dejen de preguntar.

Añade que su deseo es que no haya que presentar más mociones de este tipo, aunque estaría dispuesto a firmar todas las que haga falta, pero que también es consciente de que no valen para gran cosa; valen para trasladar la idea de que se está trabajando en el tema.

Afirma más adelante que la última vez

Gobernuaren ordezkariarekin egon zenean, data bat ipintzeaz gain, Ministerioak berak bulegoa irekiko dela baieztatzea ere eskatu ziola, dagoeneko zurrumurruak zabaltzen hasi direlako, bulegoarena gezurra dela diotenak.

que estuvo con el Delegado del Gobierno hace unos días, no sólo le pidió la posibilidad de una fecha; sino que el propio Ministerio confirmase que se va a instalar la oficina, pues ya hay rumores de que la oficina es mentira.

Joan zen astera arte, dio alkateak, jendea zebilen lanean bulego horretako instalazioetan, beraz, prozesu horrek bere bidean darrai, eta Udala arduratsua izan da bere obligazioak betetzeko orduan: Aste Santurako, leku horretan zeuden langileak lekuz aldatuta eta obrak amaituta zituen, baina, itxura denez, Ministerioak arazoak ditu giza baliabideekin.

Hasta la semana pasada, prosigue, había gente trabajando en la oficina con las instalaciones, por lo que es un proceso que sigue su camino, y el Ayuntamiento ha sido escrupuloso con el cumplimiento de sus obligaciones y para semana santa tenía el personal afectado reubicado y las obras terminadas, pero al parecer el Ministerio tiene problemas de recursos humanos.

Amaitzeko esan du eskaera orain idatzizkoa dela eta bera saiatuko dela Ordezkariari mozioa aurreratzen, hark informazioren bat aurrera diezaion.

Finaliza afirmando que la solicitud es ahora por escrito y que intentará anticipar al Delegado la propia moción, por si le puede adelantar alguna información.

Berriro Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du mozioak ez duela gauza handirik balio esaten denean, duela urte bi, bere Taldeak bulegoa jartzeko mozioa aurkeztu zuenean, berak ez dakiela mozioak ez zuela gauza handirik balio pentsatzen zen ala ez.

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien afirma que cuando se dice que no vale para gran cosa, no sabe si hace dos años se pensaba que no valía para gran cosa cuando su Grupo presento la moción sobre la instalación de la oficina.

Eta, gaiarekin aspertuta badaude, Bildukoei esango lieke bera ere

A Bildu le diría, prosigue, que si le aburre el tema a él le aburre tener que ir a

aspertu egiten dela Donostiara joan behar izaten duenean NANa berritzera, eta uste du eibartar gehienak ere aspertuta daudela, eta eskatuko lieke Bildukoei zerbitzu hau Eibarren eduki nahi duten ala ez argi eta garbi esatea; eskatuko lieke esatea ea ados dauden eibartarrek polizia baten aurretik pasatzen segitu behar duten ala ez karneta beste lekuren baten berriztu behar dutenean, polizia baten aurrean berriztu beharko baita karneta, edozein lekutan delarik ere.

Donostia para renovar el DNI y cree que a la mayoría de los eibarreses también, y les pediría que dijesen claramente si quieren o no este servicio en Eibar; pero que si también están de acuerdo con que los eibarreses tengan que seguir pasando por delante de un policía cuando tenga que renovarlo en otro sitio, pues donde sea, habrá que hacerlo delante de un policía.

Galdera da —dio Mendicute jaunak— Eibarren egin nahi duten edo eibartarrak karneta berriztera beste leku batera joan daitezela nahi duten.

La pregunta es, concluye, si desean que se haga en Eibar, o desean que los eibarreses lo tengan que hacer en otro sitio.

Errasti jaunak dio behin baino gehiagotan erantzun dutela: polizia badator ez dutela Eibarren karneta berriztu nahi, baina Mendicute jaunak ere berari erantzun bat zor diola: badaki zer den Atzerritarren Unitate bat?

Afirma el señor Errasti que ya han respondido más de una vez que si viene policía no desean que se haga en Eibar, pero que el señor Mendicute le debe una respuesta y es si sabe lo que es una Unidad de Extranjería.

Aguirre andreak dio bera Atzerritarrentzako Unitate hori zer den jakin nahian geratu dela.

La señora Aguirre afirma que se ha quedado con el suspense de qué es la Unidad de Extranjería.

Alkate jaunak dio Udal Osoko bilkura amaitzen denean azalduko diotela.

Erdibideko mozioa bozkatu eta onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Ez dago abstentziorik.

6. ATALA. Galderak eta erreguak.

- Ibañez andrearena; esaten du irailaren 12an prentsa-oharraren bidez jakin zuela, KIUB itxita zegoela hango langilea bajan zegoelako.
Gaineratzen du badakiela bulego

Indica el señor Alcalde que cuando finalice el pleno se lo pueden explicar.

Sometida a votación la moción transaccional, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU)..

Abstenciones: ninguna.

PUNTO 6º. Ruegos y Preguntas.

- La de la señora Ibañez diciendo que el 12 de septiembre se enteró por la nota de prensa que la OMIC permanecía cerrada por baja del técnico.
Añade que le consta que esta oficina

honek jende asko izaten duela, eta gardentasun famatuaren onerako, ondo legokeela hemen lanean dihardutenak zerbitzu bat itxi egingo dela egunkarietatik enteratu beharrik ez izatea.

presta servicio a mucha gente, y que en aras de la famosa transparencia, no estaría de más que los que trabajan aquí no se enteren por la prensa que un servicio se va a cerrar.

Jarraitu du esaten noiz arte jarraituko duen itxita, herrian eta inguruetan oso sustraituta dagoen zerbitzu bat baita.

Prosigue diciendo que pregunta también hasta cuándo va a estar cerrada ya que es un servicio muy arraigado en el pueblo y su entorno.

Esaten du herritar baten iritzia irakurri zuela, Udal honek zerbitzu berriak zabaldu eta KIUB itxi nahi zuela esanez.

Comenta que leyó la opinión de una ciudadana diciendo que este ayuntamiento está a favor de abrir nuevos servicios y de cerrar la OMIC.

Alkate jaunak dio bulegoa itxita egongo dela langilea bajan dagoen bitartean.

Afirma el señor Alcalde que la oficina permanecerá cerrada en tanto el empleado está de baja.

Albistegui jaunak hartu du hitza; esaten du bulegoan dagoen langileak istripua izan zuela bere lan-orduetatik aparte, kontsulta medikoetan dabilela eta, ziur aski, aste honetan jakingo dela nolako lesioa duen eta bajan zenbat denboran egongo den.

Interviene el señor Albsitegui para decir que el empleado que la atiende tuvo un accidente fuera de sus horas laborables, que está con consultas médicas y que es probable que esta semana se sepa el alcance de la lesión y el tiempo de baja.

Gaineratzen du, bien bitartean, aukera bi daudela: zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzak duen zerbitzuaren bidez ematea, edo zerbitzu hori dagoeneko aurrekontua aurkeztu duen enpresa baten bitartez eskaintzea. Albistegui jaunak dio

Añade que entretanto se barajan dos posibilidades: prestar el servicio a través del servicio del Gobierno Vasco, o presar el servicio a través de una empresa que ya ha presentado un presupuesto. Que mañana tiene una entrevista con esta empresa, que ya presta el servicio en

bihar duela elkarrizketa enpresa horrekin, beste erakunde batzuetan ere ematen duelako zerbitzu hori, eta, erabaki bat hartzeko, astearen amaiera aldera espero duela langileak zenbateko baja izango den jakitea.

otras instituciones, y que espera que para finales de semana se sepa el tiempo de baja del empleado, para adoptar una decisión.

Alkate jaunak dio bere ustez hausnarketa bat egin beharra dagoela KIUBaren inguruan, oso zerbitzu espezifikoa delako eta langilea ezin delako ordezkatu, kontratatzeko orduan ez dagoelako lanpostu horretarako behar den perfileko pertsonarik aurretik prestakuntzarik jasotzeke.

Afirma el señor Alcalde que cree que toca hacer una reflexión con el servicio de la OMIC, pues es un servicio muy específico y no se puede sustituir al empleado, ya que no hay personas con el perfil que se precisa para poder contratar sin una formación previa.

Alkateak dio zerbitzu bat pertsona bakar baten eskuetan egon eta pertsona horrek huts egiten duenean, zerbitzua jausi egiten dela. Hausnarketa hori egin beharko litzateke premia betetzeko orduan erreakzio-gaitasuna izateko.

Cuando un servicio lo lleva sólo una persona, añade, y esta persona falla, el servicio cae, y es ésta la reflexión que habría que hacer para tener una capacidad de reacción para cubrir la necesidad.

Ibañez andreak dio ez diola inork ukatuko ez dela normala egoeraz egunkarietatik jakin behar izatea, Garapen Ekonomikorako batzordean horren inguruan ezer esan ez eta egon daitezkeen konponbideak han aztertzeke.

Afirma la señora Ibañez que no se le negará que no es normal tener que enterarse por la prensa de la situación, sin abordar y contemplar posibles soluciones en la comisión de desarrollo económico.

Albistegui jaunak dio gai hori ostegun honetako batzordearen aztergaian zegoela sartuta, baina batzordea bertan behera utzi zela osoko bilkura deitu zelako.

Indica el señor Albistegui que el tema iba en el orden del día de la comisión para este jueves, pero que se suspendió la comisión porque se convocó sesión plenaria.

- Mendicute jaunarena; esaten du uztailaren 26ko Udal Osoko bilkuran berek galdetu zutela, kreditu globala erabili beharrean, zergatik ez zen erabiltzen kreditu-aldaketaren figura, eta erantzun zieten izapideak edo tramiteak azkartzeko egin zela era horretan; eta, orain, berriz, zera, Jardiñetako igogailua non jarri erabakitzeko egin zen parte-hartze prozesuaren kartazalak ireki zirenetik dagoeneko hiru hilabete igaro dira; obrak lizitatzeko uztailaren 6ko epea aipatu zen eta lizitaziorako baldintza-orriak prest zeudela esan zen, baina, berak uste zuenaren kontra —irailean kexak egongo zirela obretako zaratengatik—, uztaila joan da, baita abuztua eta iraila ere, eta obrak oraindik hasteke daude.

- La del señor Mendicute diciendo que en el Pleno de 26 de julio preguntaron por qué no se utilizaba la figura de modificación de créditos, en vez de la de crédito global; y que la respuesta fue que era para agilizar trámites, pero que se encuentran que han pasado ya tres meses desde que se abrieron los sobres del proceso de participación sobre la ubicación del ascensor de Jardiñeta, que se comentó el plazo del 6 de julio para licitar las obras, y que el pliego de condiciones de licitación está ya preparado, y contrariamente a lo que él pensaba, que en septiembre habría quejas por el ruido de las obras, la realidad es que ha pasado el mes de julio, agosto y septiembre y no se ha comenzado con las obras.

Gaineratzen du joan zen astean obren inguruan galdetu zutela, eta hasierako izapideak egiten ari zirela erantzun zieten, desjabetze batzuk egin behar zirelako.

Añade que preguntaron sobre las obras la semana pasada y que se les dijo que estaba en trámites preliminares ya que había que hacer unas expropiaciones.

Galdetzen du ea hori zekiten, ekainean, obrak uztailean aterako

Pregunta si se conocían estos extremos cuando en junio se dijo que se iban a

zirela lizitaziora esan zenean.
Bere Taldeak igogailua jartzeko auzo hartan sinadurak batu zituenean, dio Mendicute jaunak, emakume batek esan zien berak sinatuko zuela baina ez zuela uste igogailua ikusiko zuenik.
Amaitzeko esan du erregu hau egiten duela: emakume horrek, ez bakarrik igogailua ikusi, erabiltzeko aukera ere izan dezala.

licitar las obras en el mes de julio.
Añade que cuando su grupo recogió firmas en el barrio para la instalación del ascensor, una señora les dijo que iba a firmar, pero que creía que no lo podría ver.

Concluye diciendo que su ruego es que esta señora no sólo pueda ver el ascensor; sino que lo pueda utilizar.

Alkate jaunak dio uztailean lizitatu bazen ere, irailean ez zela obrengatik enbarazurik izango, eta ez dela itxaropen faltsurik sortu behar, kontratazio-prozedura batek lautik sei hilabetera iraun dezakeelako.
Uztaila aipatu zutenean, dio alkateak, zalantzan zegoen Telefónicak ate bat kendu eta beste leku baten zabaltzen utziko zuenentz, baina konpainiak ez du hori onartu; beraz, desjabetzera jo beharra dago.
Gogoan izango dute denek, dio alkateak, igogailu hori egiteko erabakiak bere baitan zekarrela Aldatze alderako beste proiektu baten urbanizazio-hobekuntzarekin koordinatzea eta aprobetxatzea; eta horrek guztiak Aldatze ikastetxearekin hainbat negoziazio egin beharra ekarri du hori dena nola elkartu zitekeen ikusteko.

Afirma el señor Alcalde que aunque se hubiera licitado en julio, no habría molestias por las obras en septiembre, y que no hay que crear falsas expectativas, ya que un procedimiento de contratación puede durar entre cuatro y seis meses.
Cuando hablaron de julio, prosigue, había la duda de si Telefónica podría condenar una puerta y trasladarla un poco atrás, pero informa que la Compañía no lo ha aceptado y por tanto hay que expropiar.

Se recordará, prosigue, que la decisión de hacer este ascensor traía consigo aprovechar y coordinar con la mejora de la urbanización mediante otro proyecto para la zona de Aldatze, lo cual ha implicado una serie de negociaciones con el Colegio de Aldatze para ver cómo se podría hacer todo.

Alkateak gaineratzen du Obra saileko teknikariekin bilduko dela proiektu biak batuta noiz atera daitekeen lizitaziora esan diezaioten, eta espero duela, Mendicute jaunak aipatu duen emakume horrek, ez bakarrik igogailua ikustea, igogailua erabiltzea ere bai.

Añade que se reunirá con los técnicos del departamento de obras para que le informen cuándo se puede licitar la suma de los dos proyectos, y que espera que esa señora no sólo vea el ascensor; sino que lo utilice.

Mendicute jaunak dio berari itxaropen faltsuak ez sortzea eskatzen zaionean, itxaropen errealei buruzko erantzuna ere prest eduki behar dela auzotarrei esateko.

Jarraitzen du pentsatzen ekainean egin zuten galdera hura, hau da, zergatik zegoen horrenbesteko presa kreditu-aldaketa hura egiteko, zentzuzkoa baino zentzuzkoagoa zela.

Amaitzeko esan du berak ere igogailua ahalik eta azkarren egitea espero duela eta, alde horretatik behintzat, gobernu-taldeak bere sostengu osoa izango duela.

Afirma el señor Mendicute que cuando se le pide no generar falsas expectativas, hay que tener también respuesta sobre las expectativas reales, para decírselas a los vecinos.

Sigue pensando, añade, que la pregunta que hacían en junio de por qué tanta prisa de hacer aquella modificación de créditos tenía todo el sentido del mundo.

Concluye diciendo que él también espera que el ascensor se pueda hacer cuanto antes y que en este sentido el Equipo de Gobierno tendrá todo su apoyo.

Alkate jaunak dio berarentzat erosoagoa izango zela ohiko kreditu-aldaketara jotzea, horrela ez zukeelako kreditu osoa ukitu beharrik izango eta onartu egingo zelako, baina ildo horretatik egitea erabaki zuela dokumentazio guztia

Afirma el señor Alcalde que para él hubiese sido más cómodo acudir a la modificación ordinaria de créditos porque no habría tenido que tocar el crédito global y porque se habría aprobado, pero que consideraron que había que hacerlo por esa línea porque tenían la esperanza

uztailerako eskura izateko itxaropena zutelako.

de ser capaces de tener toda la documentación para julio.

Gaineratzen du itxaropen faltsuak ez sortzearena Mendicute jaunak esandakoagatik aipatu duela, hark esandakotik obra hori hilabete bitan adjudikatuta egongo zela ondorioztatzen zelako, eta hori ezinezkoa da.

Añade que se ha referido a no generar falsas expectativas a raíz del comentario del señor Mendicute, ya que de lo que ha dicho se desprendía que en dos meses estaría adjudicada la obra, cuando eso no puede ser así.

Amaitzeko esan du obra lizitaziora noiz atera daitekeen jakiten denean orduan jakingo dela noiz hasiko diren obrak egiten, eta saiatuko direla ingeniari jaunak egindako eskaintzen inguruko txostena lehen bait lehen egin dezan.

Finaliza afirmando que cuando se sepa cuándo se puede sacar a licitación, se sabrá cuándo se pueden iniciar las obras, y que intentarán que el señor Ingeniero haga el informe sobre las ofertas cuanto antes.

- Ibañez andreak esan du ekaineko Osoko bilkuran berak 2018rako aurrekontuari begira gobernu-taldeak zer asmo zuen galdetu zuela, eta Alkate jaunak erantzun zion ahalik eta azkarren onartzen ahaleginduko zirela eta urte honetan bertan bazen, hobe. Horregatik, dio, bere harridura demasekoa izan da irratiz Ogasuneko arduradunak esandakoa entzun duenean, hau da, aurrekontuaren zirriborroa oposizioari urrian zehar bidaltzeko asmoa duela, aurrekontua, beranduen jota, urtarrilean onar dadin.

- La de la señora Ibañez diciendo que en el pleno de junio preguntó sobre las intenciones del Equipo de Gobierno para el presupuesto de 2018, y que la respuesta del señor Alcalde fue que se intentaría aprobarlos cuanto antes, y que si se podía este año mejor; pero indica que cuál ha sido su sorpresa oyendo por la radio al Responsable de Hacienda diciendo que tenía intención de remitir a la oposición el borrador a lo largo de octubre con el fin de aprobarlo lo más tarde posible en el mes de enero.

Baldinbaitere, izango ahal da, dio Ibañez andreak; eta ez dadila

Dice que ojalá eso sea así, y que no se estén generando falsas expectativas.

itxaropen faltsurik sortzen ibili. Ibañez andreak dio bera astero joaten dela Ogasun Batzordera eta ez duela uste onargarria denik Ogasun batzordeburuak eskuartean dituen izapideen edo tramiteen berri irratiz jakin behar izatea.

Ella, que está todas las semanas compartiendo la Comisión de Hacienda, prosigue, no cree que sea de recibo tener que enterarse por la radio de cuáles son los trámites que baraja el presidente de la Comisión de Hacienda.

Alkate jaunak dio elkarrizketa baten hainbat gairi buruzko galderak egiten direnean, dauden asmoen inguruko deklarazio bat egiten dela, berak Udal Osoko bilkuran egin zuen bezala, hau da, urrian zehar aurrekontuaren zirriborro bat eduki ahal izatea; hala ere, dio, inork ez du eman zirriborroa aurkezteko data zehatz edo jakinik.

Afirma el señor Alcalde que cuando en una entrevista te preguntan sobre determinadas cuestiones, lo que se hace es una declaración de intenciones como la que hizo él en el Pleno, que es la de poder disponer a lo largo de octubre de un borrador, pero que lo cierto es que no se ha dicho una fecha fija de presentar un borrador.

Ibañez andreak dio denen artean adostu beharko luketela aurrekontuak onartzeko egutegi bat, kolore guztietako beste udal batzuetan egiten den bezala, baina ematen du hemen nolanahi eta edozein modutan gabiltzala.

Dice la señora Ibañez que el tema es que entre todos tendrían que consensuar un calendario de aprobación de presupuestos, como se hace en otros ayuntamientos de todos los colores, pero que dá la sensación de que se está a “salto de mata”.

Alkate jaunak dio, ziur aski, horrela egiten ez duten udalak gehiago izango direla horrela egiten dutenak baino.

Afirma el señor Alcalde que seguro que son más los ayuntamientos que no lo hacen, que los que lo hacen.

- Aguirre andreak dio ordenantzen aldaketak zeharo gerarazita daudela eta agintaldia amaituko dela animalien ordenantza eta herritarrek parte hartzekoa aldatzeke; eta, gainera —dio— ez da ahaztu behar CESen proposamena oraindik bideratzeke dagoela, animalien ordenantzarena, alegia.

- La de la señora Aguirre diciendo que las modificaciones de las ordenanzas están totalmente paralizadas y que se va a acabar la legislatura sin poder modificar la ordenanza de animales y la de participación ciudadana, sin olvidar que está pendiente la propuesta de CES de la ordenanza de animales.

Alkate jaunak dio ardura hori partekatzen duela eta hausnarketa bat egiten ari dela landuko diren ordenantzei buruz, araudi berriak udalei eragiten dietelako, prozedurak etengabe luzatuko baitira, eta hori guztia teknikariekin batera ari direla aztertzen.

Afirma el señor Alcalde que comparte la preocupación y que se está haciendo una reflexión para ver las ordenanzas sobre las que se está trabajando, ya que la nueva normativa afecta a los ayuntamientos, pues los procedimientos se van a alargar indefinidamente; y que es algo que se está estudiando con los técnicos.

- Juez andrearena; esaten du orain dela denbora asko eztabaidatu zela Banco Santander-en *swaps*en inguruan, prozesua atzeratu egin dela eta berek nahiko luketela jakin Udalak zergatik galdu zuen eta prozesu judiziala zein puntutan dagoen, IMESAko kontseilua ekainean disolbatu zelako eta aurrekontuetan ez direlako agertzen 900.000 euroak; horregatik guztiagatik, informazioa eskatzen du.

- La de la señora Juez diciendo que hace tiempo que se debatió sobre los swaps del Banco Santander, que el proceso se ha dilatado y que les gustaría saber por qué se perdió y en qué punto está el proceso judicial, pues el consejo de IMESA se disolvió en junio y en los presupuestos no aparecen los 900.000 euros, por todo lo cual solicita información al respecto.

Alkate jaunak dio gaia daramaten abokatuei berak egin zien galdera baten erantzunaren zain dagoela, Auzitegi Gorenak ebazpen bat eman duelako, errekurtsoa izapiderako onartzen ez duena, eta aztertzen ari dira Konstituzio Auzitegiaren aurrean errekurtsorik jar daitekeen.
Gaineratzen du gaia argitzen denean, ziur aski, Bozeramaileen Batzarra deituko duela.

Dice el señor Alcalde que está esperando que los abogados que llevan el tema le comuniquen una cuestión que él les trasladó, pues ha habido una resolución del Tribunal Supremo por la que no admite a trámite el recurso y se está estudiando si cabe el recurso ante el Tribunal Constitucional.
Añade que cuando se aclare el tema convocará posiblemente una Junta de Portavoces.

- Abanzabalegui andrearena; esaten du Eibarko ospitale berriaren obretako jarraipen-mahaia biltzen bada, horren inguruko informazioa eskatzen duela; eta, aldi berean, mahai hori biltzea eskatu du, obren jarraipenari buruz hainbat zalantza sortu direlako: obren atzerapenak ekar dezakeen gainkostua; hasiera-hasierako plan funtzionalak bere horretan segitzen duen ala ez edo osasun-zerbitzu batzuk aldatu behar diren.
Gaineratzen du Mahaia deitzen bada, bere Taldeak parte hartu nahi duela.

- La de la señora Abanzabalegui diciendo que si se reúne la Mesa de seguimiento o de las obras del Hospital, se disponga de información al respecto, a la par que solicita que se reúna dicha Mesa pues surgen varias dudas sobre el seguimiento de las obras, entre ellas el sobrecoste que puede suponer el retraso de las obras, o si persiste el plan funcional inicial, o se van a cambiar algunos servicios sanitarios.

Añade que si se convoca la Mesa, su Grupo desearía participar.

Alkate jaunak dio egindako galderak jaso dituela eta Osakidetzako zuzendariarekin egingo duela

Afirma el señor Alcalde que tomará nota de las preguntas y hablará al respecto con la directora de Osakidetza, y que si

horretaz berba, eta, bidezkotzat jotzen bada, mahaia bilduko da, edo, galderei erantzuteko foroa beste bat den ala ez adieraziko, galdera horietako batzuk Legebiltzarraren kontrolekoak direlako.

se considera oportuno, se reunirá la Mesa, o se considerará que el foro de respuesta es otro, pues algunas de las preguntas son más bien de control parlamentario.

Alkateak gaineratzen du, edozelan ere, Mahai horretan Eusko Jaurlaritzako bi ordezkari eta Udalaren beste bi ordezkari daudela, Benítez jauna, Obretako zinegotzia, eta bera, alkatea delako.

Añade que en todo caso, la Mesa está constituida por dos representantes del Gobierno Vasco y dos del Ayuntamiento, que son el señor Benítez como concejal de obras, y él como Alcalde.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoe-nez, eta gaueko bederatziak izanik, Alkate jaunak bilerari amaiera eman dio, horri guztiari, nik Idazkari Oro-korrak fede ematen diodalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.